

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 14

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

2008 – Otsailak - 21

ARRE EDO ISO

2008ko otsailaren 12ko Mahai Negoziatzaileko azken bileran, Partzuergoak hordagoa bota zuen, **bi eszenatoki posible** aurkeztuz:

- LEPren deialdia haien kontura ateratzea, azterketak uztailean egiteko, ondorioz, Lan Hitzarmena negoziatzeko eperik ez legoke.
- LEP atzeratzea (orain arte udazkenerako aukera bota dute) deialdiaren baldintzak negoziatzeko aukera emanez. Honekin batera Lan Hitzarmenaren inguruan aurre akordioa sinatzea 15 egunetan.

Beraz, erabakia hartzeko **epe estua dugu**.

Lan Hitzarmenean aurrerapenak nahi ditugu. Urrun gaude, baina aurrera pausuak egon daitezke garrantzitsuak aurkitzen ditugun hainbat puntutan **eztabaidak ez baitugu itxiztat ematen**.

LEPa negoziatu nahi dugu, baina Partzuergoa lege ez dago beharturik oposaketa deialdia sindikatuekin negoziatzera, beraien aldetik atera dezakete. **Negoziaketa hauetan parte hartzeak garrantzi handia duelakoan gaude**.

Arrazoiak

- Partzuergoan lanean **gaudenak finkotzea** izan behar da helburu. Erabakitzen dena ez badoa ildo honetatik, kanpotik etorritakoak plaza lortu ahal izango dute (ordezkapenak betetzeko batzuk ez daude prest, baina plaza finkoa lortu ahal izatea guztiek nahi dugun gauza bat da... AUSKALO zenbat aurkeztuko diren!!!!
- **Plaza asko** aterako dira
- Langile **guztiak deituta** gaude
- Lehen deialdia izanik **aurrekaria ezarriko du**, hurrengoetarako erreferentea, nahiz eta deialdi guztiak berdinak ez izan.

Lortu nahi duguna:

- Ordezkoen zerrenda LEPko emaitzekin **loturarik ez izatea**
- Azterketak **ez baztertzailleak** eta **ez traumatikoak** izatea. Ez baztertzaillea izatea oso garrantzitsua da, bestela gainditzen ez duenak (partzuergoa sortu zenetik lanean egonda ere) ezin izango luke hurrengo azterketara edota fasera pasatu; plaza lortzeko aukera guztiak azterketa bakar batean galduz.

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 14

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

2008 – Otsailak - 21

Gainera, legeak dio oposizio faseak %70 balio behar duela eta lehiaketa faseak %30. Azterketak gainditzeko beti daude, baina azterketak langileentzako zama gutxikoak badira (guztiak gainditzeko modukoak), lehiaketa faseko puntuak erabakigarriak bihurtuko lirateke. Horrexegatik Partzuegoak egindako proposamenari (2 azterketa idatzizkoak) guk nabardurak gehitzen dizkiogu:

1. froga→ test teorikoa baina galderak aurretik jakinda. (adibidez, autoeskoletan egiten den moduan; ikasitako 100 galderetatik, azterketan 45 galdetzea).
 2. froga→egunerokotasunean oinarritutako balizko kasu praktikoen galderak. (hauek ere, beraiek aurretik sorta bat ikasteko emanda; "gaitegi" antzerakoa).
- Baremoaren bidez **lehentasuna** ematea **partzuegoan egindako zerbitzuei**. Hau da, Partzuegoa sortu zenetik hemen lanean daramana atal horretako puntu maximoa lortzea eta, aldi berean, bestelako zerbitzuei ematen zaien puntuak mugatu, beharrezkoa izateko Partzuegoan zerbitzuak izatea maximora ailegatu ahal izateko.
 - Haien eskolarekin batera **integratu diren hezitzaileen egoera** kontuan hartzea

Honengatik guztiagatik, **gure apustua 2 atalak** (LEP deialdia zein Lan Hitzarmena; hau da, B eszenatokia) **negoziaztearen aldekoa da**, prozesua luzatuz ez dugu uste Lan Hitzarmenaren inguruan urte osoan egin ez duguna hilabete batzuetan egingo genukeenik, are gutxiago LPE deialdia ordurako eginda egongo denean. Ditugun erronkak handiak dira, baina aurrera pausu txikiak ere eraginkorrak dira.

Aipatu, **STEE-EILASek ez duela bera bakarrik ezer sinatuko, eta Batasun Sindikala mantentzearen alde** agertzen garela. Edozer sinatzeko langileen ordezkariaren gehiengoa (%50 gutxienez) behar dela uste dugu, benetan demokrazian sinisten dugu eta.

STEE-EILASen irizpideak hauek izanda, horrela aurkeztuko ditugu bai sindikatuen arteko bileran baita eta langileen asanbladetan ere.

Animo eta zuen indar guztiekin aurrera egingo dugu!!

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	nafarroa@stee-eilas.org